

# txintxarri

## Done Jakue azoka, Erdi Arora atzera-buelta

Euriari aurre eginez, herritarrak azoka ikustera atera ziren / 6-7

## Bizikidetzan pausoa

Maixel Lasak eta Lourdes Zabalzak adiskidetzeari buruz hitz egin dute Lasarte-Orian / 2

Aterpeko denden stockeko produktuak herritarren eskura, gaur eta bihar goizean / 4

Trantxe, Olazagoitia eta Iparragirre: Nafarroa Xtrem probaren osteko gogoetak / 10

zerbitzu mistoak

**MAiTE**

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

ATERPEA

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

600 857 586  
www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

**Poltsarik gabeko xurgagailua**

"Hygiene Lifetime" filtroarekin: partikula finen %99,98 jasotzen du

**SUKALDEKO TRESNERIA**

Kalitatezko tresnak, diseinu berritzaileekin  
Labanak, zartagiak, zuritzeko tresnak...

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21





Maixabel Lasa, mahaiaren erdialdean, eta Lourdes Zabalza, haren eskuinean, Antonio Mercero aretoan, asteartean. TXINTXARRI

## Biktinek bizikidetzari buruz emandako lezioa

'Glencree' dokumentalarekin itxi du Bizikidetzeta Taldeak zine zikloa. Maixabel Lasa eta Lourdes Zabalza gonbidatu dituzte emanaldira, eta adiskidetzeta proiektuaren esperientziak kontatu dituzte. Ikus-entzuleek eztabaidan parte hartu dute gero

### Adrian Garcia

Euskal Herriko gatazkak biktima ugari utzi ditu, alde batean zein bestean. Haatik, bizikidetzeta baketsu baterako oinarria ezartzen lan eskerga egindakoak dira. Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Taldeak antolatutako zine zikloaren azken ekitaldian ikusi ahal izan da hori: *Glencree* ekimenari buruzko dokumentala

eman zuten asteartean, Antonio Mercero gunean. Gonbidatu bereziak izan dituzte, proiektu horretan parte hartutakoak: Maixabel Lasa eta Lourdes Zabalza. Biak dira indarkeria politikoak eragindako biktimak.

Proiektu berria zen *Glencree*, Irlandako gatazkatik eredu gisa hartua. 2007an hamar biktima hartu zituzten, eta *Glencree*

eraman zituzten, Irlandako landa eremuko etxe batera. Eragile armatu desberdinek eragindakoak ziren biktimak: ETAk hildako bost pertsonen senideak, eta beste bost GALEk edo eskuin muturreko taldeek hildakoak.

Juan Maria Jauregiren, Gipuzkoako gobernadore zibila izandakoaren, alarguna da Lasa; 2000an hil zuen ETAk. *Glencree*

martxan jarri zuten garaian Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Arretako zuzendaria zen. "Garai zailak ziren haiek; ETA indarrean zegoen, eta estatuak atxilotze kanpaina abian zuen. Gune isolatu bat nahi genuen, prentsaren kontaktutik kanpo".

Guztira hiru talderekin probatu zuten esperientzia. Zabalza hirugarren taldean eraman zuten. 1985ean hil zuen Guardia Zibilak haren anaia Mikel, atxilotu eta torturatu ostean. Bidasoa ibaian aurkitu zuten hilotz. Sekula ez dute ikerketarik egin hilketa argitzeko.

### "Aitorpen txiki bat"

Zabazak zalantzak izan zituen proiektuan parte hartzeko. "Nire anaiekin kontsultatu nuen. Guretzat aitorpen txiki bat zen, Mikel biktima bat izan zela onartzeko". Hasierako uneak deserosoak izan zirela gogoratzen du. "Ez nuen inor ezagutzen, moderatzaileak bakarrik. Tentsio handia zegoen".

Lehenengo egunean bakoitzak aurkezpen bat egin zuen, hari gertatutakoa besteie azaltzeko. "Tabu asko hautsi ziren. Pentsatzen genuen batzuk pribilegiatuak izan zirela, baina gero ohartu ginen ez zela horrela izan", azaldu du Zabazak.

Batak bestearen istorioa eta mina konpartitzean, harreman berezia sortu zen biktimen artean. Zabazak: "Besteari

entzutean gerturatze bat egon zen, enpatizatu egin genuen. Bakoitzak bere ideologia zuen, eta talkak egon ziren. Baina ideologia bigarren maila batean geratu zen; garrantzitsuena zen zer gertatu zen".

### Denak biktimak

Harresi asko hautsi zituzten *Glencree*-n parte hartutakoek. Alde banatako biktima gisa joan ziren, baina esperientziak partekatu ondoren, denak alde berean zeudela konturatu ziren. "Denok sufritu dugu, eta bidegabea izan da denon kasuan", esan du Zabaltzak.

Emaitza arrakastatsua izan zuen proiektuak, antolatzaileek aurrekusi zutena baino gehiago. "Ez genuen inoiz horren emaitza ona espero", adierazi du Lasak. Proiektua amaitzean, 2012an, testu bateratu bat plazaratu zuten biktimek: eragindako kaltea errekonozitzea eskatu zuten, eta erantzukizunak egozte. Egun harremani eusten diete proiektuko kideek.

Horrenbeste sufritu ondoren, pentsamolde desberdineko biktimek gutxiengo etiko batzuetan ados jartzeak miresmena piztu du Antonio Mercero aretoan. Dokumentalaren ostean eztabaidari ekin diote ikus-entzuleek, baina denek bat egin dute puntu batean: biktimak ados jartzea lortu badute, gizarteak ere pauso gehiago egin beharko lituzke adiskidetzeta prozesuan.

## Lagunartean euskaraz aritzeko 'Solaskide' saioa hastear da

Mingaina askatu eta programan parte hartu nahi dutenek urriaren amaiera arte izena eman ahal izango dute

### Txintxarri

Euskaraz aritzeko ohitura dutenak ohiturarik ez dutenekin elkartu eta hizkuntzan trebatzeko programa da *Solaskide*. "Euskaldun askok hizkuntzaren normalizazio prozesuari beren ekarpena egin nahi diote", azaldu du Naiara Mujika egitasmoaren antolatzaileak. "Euskaldun zaharrak ezinbesteko dira egitasmoan, zailtasunak dituzten hizlariei elkarrizketaren bitartez asko laguntzen baitiete

euskaraz egiten", gaineratu du Ttakuneko Kultura arduradunak.

Urte asko dira Ttakun Kultur Elkarteak euskaraz trebatzeko egitasmoa antolatzen duela, eta aurtengoan ere ez du hutsik egingo.

*Solaskide* programan bost edo sei laguneko taldeetan biltzen dira parte hartzaileak, astean ordubetez, eta eurek erabakitzen duten lekuan. Kideen zaletasunak, adina eta ordutegiak kontuan hartuta egin ohi dira taldeak, eta horren arabera,

kafetegian, parkean zein eurek adostutako lekuan egin ditzakete solasaldiak. "Euskaraz hitz egitearekin batera, gustuko dituzten ekintzak egiten dituzte elkarrekin. Lagunartean aritzen dira, giro hurbil eta parte hartzailean", esan du Mujikak.

Solaskide programaren bidez Lasarte-Oriako euskaldunen sarean murgiltzen dira, lagunak egiten dituzte, eta euskaraz mintzatzeko erraztasuna eta jariatutasuna eskuratzen dituzte parte hartzaileek.

### Ekintza gehigarriak

Asteroko hitzorduez gain, hilabetean behin mintza praktika ere egiten dut kideek, elkar ezagutzeko. Gainera, harremanak estutzeko ekintza osagarriak antolatzen dira.



Iragan ikasturteko solaskideak, elkarrekin egindako ekintza batean. TXINTXARRI

Ikastaroak, bazkari zein afariak, arratsalde pasak, eta asteburuetak planak egin ohi dira. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hautazkoa izango da horietan parte hartzea.

Bi modutan eman ahal izango da izena programan: *kultura@ttakun.eus* e-posta helbidera mezu bat idatzita, edo eta 695 785 389 telefono zenbakira deituta.



# Gaueko ordu txikietan kulturaz ere gozatzeko

'Gautxori' egingo dute gaur, ostiralez, Manuel Lekuona kultur etxean. Antzerkiaz, musikaz eta dantzaldiaz gozatu ahalko dute gauean herritarrek, 02:30ak arte. Kultur etxeko taberna irekita egongo da, eta giro lasaian musikaz gozatu ahalko da

## Txintxarri

Ostiral gau batean ez da aukera askorik izan ohi kulturaz gozatzeko, norberaren etxean ez bada behintzat. Tabernetan eta jatetxeetan izan ohi dira aisiarako aukera bakarrak. Desberdina izango da, ordea, gaurko ostiralean. Lasarte-Oriako Kultura sailak gau berezia antolatu du: kultur etxean *Gautxoria* egingo dute. 20:30etik 02:30era bitartean, hainbat kultur ekintza eskainiko dituzte, doan.

Urtaro aldaketarekin bat dator ekimena, eta udazkenerako kultura ekitaldien aurrekaria izan nahi du. "Beti defendatu dugu kulturak gertukoa izan behar duela, eta denontzako eskuragarria", azaldu du Jesus Zaballos alkateak. Horren erakusgarri da, izan ere, *Gau Zuria* ekimena, alkatearen hitzetan. Maite Iglesias Kultura zinegotziak eta Juantxi Ugarte Kultura teknikariak lagundu diote alkateari ekitaldiaren



Ugarte teknikaria, Iglesias zinegotzia eta Zaballos alkatea, aurkezpenean. TXINTXARRI

aurkezpenean. Sarrera doan izango da, baina alde zurretik jaso behar da.

Kultur etxeko taberna itxita egon arren, gau batez atea irekiko ditu. Pub Patricio arduratuko da gau horretan

edariak zerbitzatzeaz. Urdaiazpiko ebakitzaila bat ere izango da jatekoa emateko. Izan ere, kafetegia *Gautxoria* ekimenaren zati garrantzitsua izango da. Old Charm Blues bikoteak zuzenean joko du tabernan; musikaz gozatu

bitartean, lasai hizketan egoteko gunea bilakatu nahi dute kafetegia.

Auditoriuma izango da gaueko beste eszenatokia. Amaia Gonzalezek ikuskizuna eskainiko du hasieran, 21:00etan. Ondoren, kafetegia girotuko du Gonzalezek, dantzaldi batekin. DJ Dukeren doinuek jarriko dute festa giroa kultur etxea itxi arte, 02:30ak arte.

## Ikuskizunen arteko gidaria

Auditoriumeko bigarren emanaldia antzerkia izango da. Detritus konpainiak sortu du obra: *Ovarios verdes fritos*. Emakumeek menopausia garaian bizi dituzten gorabeheren errepaso egingo du antzezlanak. Ugarte kultur teknikariak azaldu duenez, helduentzako obra da, "pobrokatzailea eta dibertigarria". 23:00etan hasiko da antzerkia.

Patxi Perez aktorea izango du ikus-entzuleak bidelagun gau osoan. Hura arduratuko

baiza aurkezpenak egiteaz, eta ikuskizun batetik bestera gidatuko du. Telebista aurkezle ezaguna da Perez; ibilbide luzea du telebistan zein antzerkigintzan. ETBko saioetan ere parte hartu izan du, esaterako, *Mi querido Kliksky* umorezko telesailan.

## AMAIA GONZALEZEN DANTZALDIK GIROTUKO DU KAFETEGIA, FESTA AMAIERA ARTE

Lehen aldiz antolatu dute *Gautxori* ekimena, eta, emaitzaren arabera, hurrengo urtean ere prestatzea aztertuko du udalak. Sarrera doakoa izanda, herritarrek parte hartzea espero dtue. Goiko zatia kontuan hartuta, 500 bat laguntzako tokiak du auditoriumak.

## Egitaraua

- **20:30-02:30:** Kafetegia irekita egongo da, Pub Patricioren eskutik. Pintxoak eta urdaiazpiko ebakitzaila izango dira.
- **21:00:** Amaia Gonzalez y CIA-ren emanaldia auditoriumean.
- **22:00:** Kafe kontzertua kafetegian. Old Charm Blues taldeak joko du: pianoa eta abeslaria zuzenean.
- **23:00:** Antzerkia helduentzat, auditoriumean: *Ovarios verdes fritos*.
- **00:15-02:30:** Dantzaldia kafetegian Amaia Gonzalez y CIA-rekin, eta DJ Duke-rekin.

## Erketz dantza taldea, 50. urteurrena prestatzen

Ikasturte bereziari eman dio hasiera Erketz EDTk. Abuztuan, Suancesen izan ziren dantzan

## Txintxarri

Erketz EDTk 2017-2018 ikasturte bereziari hasiera eman dio eta 2018ra begira ari dira lanean, elkartearen 50. urteurrena betetzen baita.

Ikasturtea hasi baino lehen ordea, abuztuaren 19an, XVI. Suances Hiribilduko Folklore jaialdian izan zen taldea.

A Coruñaiko bi dantza talde eta Suanceseko Nuestra Señora de Las Lindes y del Carmen taldearekin batera parte hartu zuen Erketzek jaialdian. Lasarte-Oriako taldeak bi agerraldi egin zituen: batean Agurra, Desafioa, Arku-dantza,



Erketz EDTko lagunak jaialdian. ERKETZ

fandangoa eta arin-arina dantzatu zituen eta bestean aurten ikasitako Corteseko dantzak.

## 50. urteurrena

Ikasturte interesgarria du aurretik dantza taldeak.

Erketzeko kideek azaldu legez, otsailetik urrira arteko egitaraua prestatzen ari dira. "Hilabetero zerbait eskaini nahi dugu, abuztua eta apirilean izan ezik. Urtero egiten ditugun hitzorduak eta berriak izango dira, hala nola, euskal jantzien desfilea".

Ekintzak prestatu edo horietan parte hartzeko jendea behar dute, eta horregatik taldeari lagundu nahi dionak [erketzdantzataldea@gmail.com](mailto:erketzdantzataldea@gmail.com) helbidera idatzi dezakeela aipatu dute.

Bien bitartean, beste hitzordu batzuk ditu taldeak, lehena urriaren 28an, Suberriren 5. urteurrena da.

## Herriak zure zerbitzuak ezagutzea nahi duzu?



Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,  
doan eta euskaraz

publizitatea@ttakun.eus  
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66





Artelatze Zigor Lamprek bizikleta eta bidegorriari buruzko saioak eskaini dizkie Oriarte ikastetxeko DBH2ko ikasleei. TXINTXARRI

# Mugikortasun astea, oinezkoei bide emanez

Lasarte-Oriako Udalak Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egin du. Gaur, irailaren 22a, da Autorik Gabeko Eguna, eta ekintza ugari antolatu ditu udalak. Aurten hainbat berrikuntza prestatu dituzte. Kale Nagusia itxita egongo da arratsaldean

## Nerea Eizagirre

Astelehenetik Mugikortasun Astea da herrian. Eta, gaur, Autorik Gabeko Eguna da, Mugikortasun Asteko egun nagusia Lasarte-Orian. Ingurumeneko zinegotzi Agustín Valdiviak eta Eli Gondat Artelatze teknikariak Lasarte-Orian Mugikortasun astearen nondik norakoak eta gaurko egitaraua aurkeztu zituzten.

*Partekatzeak urrutiago eramango zaitu* du leloa aurtengo asteak. Horregatik, Gondatek azaldu modura, aste honetako ekintzek garraibide garbiei, eta, batez ere, oinezkoei garrantzia ematea dute helburu. Ondorioz, gaur 16:30etik aurrera, Kale Nagusia Tajamarreko biribilgunetik Ola Kaleko biribilgunera itxiko dute.

Aurtengo berrikuntza nagusia da adin askotarikoei zuzendutako ekintzak aurrera eramango direla. Batetik, *Ondo ibili* egitasmoa izango da pertsona adinduei zuzendua, eta, bestetik,

Ostadar SKTko ipar martxa taldea ere Okendon izango da, kirol horren berri emateko eta oinarritzko ezagutzak eskaintzeko.

Gaurko ekimenez aparte, Lasarte-Oriako Bigarren

Hezkuntzako ikasleek bizikleta eta bidegorriaren erabilerari buruzko ikastaroak jasoko dituzte. Lehen saioak asteazkenean izan ziren, eta gaur azken hirurak eskainiko dituzte.

## Egitaraua

- **Egun osoan:** Manttangorri doan
- **Egun osoan:** Argazki erakusketa, udaletxeko arkupeetan.
- **11:00:** Ttipi Ttapa. Ondo ibili irteera, Okendo plazan. Ordu t'erdiko iraupena duen ibililadia adineko pertsonen zuzendua dago.
- **16:30-19:30:** Haurrei zuzendutako jolasak, Kale Nagusian eta Okendo plazan: segway, asisialdiko jolasak, herri kirolak, futbitoa...
- **16:30-19:30:** Ostadar SKTko ipar martxa taldea, Okendo plazan.
- **16:30-19:30:** Bigarren eskuko bizikleta azoka, Okendo plazan. Saldu nahi diren objektuak 15:00etatik 16:30era utzi behar dira. NAN eta telefono zenbakia eskatuko dira.
- **16:30:** 6-11 urte bitarteko bizikleta martxa, Okendo plazatik. Ibilbidea erdialdeko bideetatik egingo da. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eramatea beharrezkoa da.
- **17:00:** 12 urtetik gorako bizikleta martxa, Okendo plazatik. Donostiarako bidegorritik eta Plazaola bidetik barreneko ibilbidea. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eraman beharko ditu.



NEURE KABUZ

MAILU ARRUTI

## CAT t' estimu molt

Borroka armatuak deslegitimatatu egiten du ideien defentsa. Etorri instituzioetara. Hitzez dena defenda daiteke. Parlamentuan denez hitz egin daiteke. Konstituzioa ere alda daiteke. Demokrazian soberatasuna herrian datza.

GEZURRA GALANTA.

Gure herria bide hori egiten ezagutu dugu. Eta "Dena ETA da" asmatu zuten. ETA instituzioetan dago. Baztertu egin behar da. Inhabilitazioa. Bakearen bidea urratu zutenak ere kartzelara. Sei urte handi pasa dituzte.

Jaunak eta andreak, ez du balio pixka bat abertzalea izateak. Pixka bat demokrata izateak. Bagara ala ez gara? Hitzez bai, baina ekintzez...

Ezin dugu hau pasatzen utzi.

Listoia lehengo mailara jaitsi da. Ezin zaio herriari galdetu zer izan nahi duen.

Lapur hauek gure dirua, gure izaera, gure askatasuna, gure lurra, gure muina, lapurtuko digute.

Katalanak eleganteak, diplomatikoak, komertziantek onak, negoziatzaileak, hitzez defendatu dute beraien nortasuna.

Ba, garaia iritsi zaie. Inhabilitazioak, kereilak, kartzela mehatxuak, debekuak...

Harro egon daitezke, hala ere, dauzkaten buruzagiez, daukaten *President* az. Oso garbi daukate ORDEZKARIAK direla. Herriak diona defendatu behar dutela. Eta horretarako asko galdetu behar bada, ba, galdetzen da. Gauza inportanteak badira, gehiago. Demokraziaren esentzia da.

Europako herri zaharrena garelako harro esaten dugu. Ez dugu utzi gure izaera zapuzten. Miraria da horrelako herri txiki batek nola aurrera egin duen historian zehar. Hizkuntza bitxi horrekin.

Auzolana izan da gure ezaugarrietako bat. Auzokoak larrialdian daude. Lagun diezaiegun katalanei, gure etorkizuna ere idazten ari dira eta.

*Estem amb volsatres.*

## Adinekoen omenezko asteko izen emateak, martxan

Lasarte-Oriako Biyak Bat elkarteak Adinekoen Omenezko astea antolatu du, udalaren laguntzarekin, urriaren 8tik 8ra. Hainbat ekintzatan izena eman daiteke dagoeneko.

Urriaren 1ean, bazkaria izango da Michelingo pilotalekuan. Zortzi euro ordaindu behar dira, eta gaur da izena emateko azken eguna.

Urriaren 7ko ibilbide neurtuaren parte hartzeko, irailaren 29a baino lehen inskribatu behar da.

Jokoetan edo bingoan jokatu nahi dutenek urriaren 2ra arte egin dezakete inskripzioa.

Dantza lehiaketan parte hartzeko, izen ematea urriaren 6an egingo da saloian bertan, 17:00etatik 18:00etara.

Izen emateak egin edo ekintzen informazio gehiago eskuratzeko, egoitzako bulegora jo behar da, 10:30etik 12:30era.



NOAOA  
BIDAIAK

ABENDUAREN 3TIK 9RA  
Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaa.eu • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria





Aterpea Merkatarien elkarteko kideak, udal ordezkariak lagunduta, astearteko prentsaurrekoan. TXINTXARRI

# Erakuslehoak berritzeko Stock Azoka, gaur eta bihar

Bi berrikuntzekin dator aurtengo azoka. Batetik, komertzio parte hartzaileen gorakada; guztira, hamabost negoziok egingo dituzte eskaintza bereziak azokan. Bestetik, orain arte ostiralean bakarrik egin bada ere, aurtun, larunbat goizera arte luzatuko da azoka

## Txintxarri

Denboraldiz kanpo geratu dena Stock Azokara atera, eta saltzeko aukera ezin hobea da. Hori da azokaren helburua. Ramon Ormazabal Aterpea Merkatarien elkarteko lehendakariak azaldu moduan, "dendan geratu zaizkigun produktuak saltzeko aukera ona da, udazken eta neguko produktuekin erakuslehoak berritzeko".

Urtero moduan, negozio parte hartzaileen kanpoaldean karpak jarriko dituzte stockeko produktuak saltzeko, baina aurtengoak, izango ditu berrikuntza pare bat. Komertzio kopuru handiagoaren parte hartzea izango da; guztira hamabost establezimenduk hartuko dute parte Stock Azokan. Horrekin batera, orain arte ostiralez soilik egin izan da, baina oraingoan, larunbat goizera arte luzatuko da.

Aterpea elkarteak jakitera eman duenez, stockera aterako diren produktuei ez zaie aurrez

deskontuko preziorik finkatuko. "Komertzio bakoitzak libreki erabakiko du salgaiari zein eskaintza prezio finkatuko dion", adierazi du Ormazabalek.

## Parte hartzea handitzen

Geroz eta komertzio gehiago dira Stock Azokan parte hartzera animatzen direnak. Aurtengoan, esaterako, Lasarte-Oriako hamabost negozio izango dira azokan, eta askotariko produktuak erosi ahal izango dituzte herritarrek. Arropa dendei dagokionean, Alba Moda, Donna Boutique eta Mabel Moda dendek jarriko dituzte eskaintza bereziak, eta horiekin batera, baita Iturbe eta Leder oinetako dendek ere.

**UDALAK UTZITAKO  
KARPA TXURIETAN  
JARRIKO DITUZTE  
SALGAIK, DENDEN  
KANPOALDEAN**

Beste produktu mota asko ere erosi ahal izango dira. Olmi, Urruzola eta Aritza mertzeriatan ere izango dira aukerak, baita Deco 75 etxeko ehunak komertzioan, Arregui elektrizitate dendan, Marbell ile-apaindegian, Kattagorri jolas dendan, Ines Flores artisau dendan, Abreu bazarrean, eta Las-arte pintore estudioan ere.

**Udala, ekintza horiek sustatzen**  
Lasarte-Oriako komertzioa dinamizatzeke egiten den lana nabarmendu du Jesus Zaballos alkateak.

Horrekin batera, pozik agertu da beste urtebetez azoka egiteko egitasmoak aurrera jarraitzen duelako, eta geroz eta parte hartzaile gehiago dituelako. Horrela, eskerrak eman nahi izan zizkien Aterpea merkatarien elkarteari, eta baita azokan parte hartzera animatu diren komertzio guztiei ere.

## "Faxismoaren aurka" mendi martxa egingo dute igandean

'Atzoko eta gaurko faxismoaren aurka' lemapean, Txaldatxur gaineko lubakietara irteera antolatu du CNTk

### Txintxarri

Guda zibilean bizitza galdu zutenak gogoratu eta omentzea du helburu CNT sindikatuak iganderako antolatutako ekitaldiak. Horrekin batera, "gaur egungo faxismoa" salatu, eta horren aurka borrokatzea du xede.

Azken boladan, talde faxistek egindako ekintzak ekarri dituzte gogora, Bilboko Aste Nagusian La Huella oroitarrian egindako pintadak, besteak beste.

Goizeko 10:00etan abiatuko dira martxako parte

hartzaileak, Txaldatxur gainera.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hipodromoko zubitik irtengo dira, eta Zubieta gaineko lubakietara joango dira.

'Atzoko eta gaurko faxismoaren aurka' lemapean, Txaldatxur gaineko lubakietara egingo dute irteera.

CNT sindikatuak dei egiten die Lasarte-Oriako herritarrei igandeko deialdian parte hartu dezaten.



TXINTXARRI

## Kataluniarekin elkartasuna

Lasarteoriatarrek bat egin dute Kataluniarekin, eta elkartasuna adierazteko, elkarretaratzea egin zuten asteazken iluntzean udaletxe zahararen aurrean. Senyerak eta bozka orriak erakutsiz, azken egunetako gertaerak salatu, eta urriaren leheneko erreferendumari babesa erakutsi diote herritarrek.

## Euskal dantzetan trebatzeko plaza dantza saioak, herrian

Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, plaza dantzak ikasi eta praktikan jartzeko aukera izango dute herritarrek

### Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak gogorarazi nahi du datorren asteartean, irailaren 26an, plaza dantza saioak hasiko direla.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeke gimnasioan izango da hitzordua (20:00etan), eta, ikasturtearen nondik norakoak zehaztuko

dituzte. Horrekin batera, zein dantza ikasiko diren ere jakin ahal izango dute interesatuek, baita hastapeneko taldea sortuko den ere.

Deialdi irekia da, eta kultur elkartetik parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek.



# Lasarte-Oria, erdi aroan murgilduta

## Done Jakue Azoka, iruditlan



Kale ikuskizunak ikusi ahal izan zituzten azokara gerturatutakoek. TXINTXARRI



Azokara gerturatu zirenek musikaz ere gozatu ahal izan zuten. Haize instrumentuekin, eta danborrekin osatutako



Hainbat jaki dastatzeko askotariko postuak ere izan ziren Lasarte-Oriako kaleetan. TXINTXARRI



Kale antzerkiaren une bat, Kale Nagusian barrena. TXINTXARRI





u zeltak gertutik entzun ahal izan ziren. TXINTXARRI



Gaztetxoek ere izan zuten zer egin; irudiotan letxugak landatzen ari dira. TXINTXARRI



Koloretako arropak soinean zituen asto bat ere ibili zen azoka ingurua girotzen. TXINTXARRI



Erroskilak nola egiten zituzten ikusi ahal izan zuten bezeroek gozo postuetan. TXINTXARRI



# Euriz blai, Kutxa Kultur Jaialdia

Ezerk ezin izan du zapuztu musikazaletasuna; ez euri zaparradek ezta eguraldi ezin kaskarragoak ere. 4.000 pertsona inguru gerturatu ziren ostiralean hipodromora, eta beste hainbeste larunbatean ere, Kutxa Kultur festibalaren zazpigarren ediziora

## Iñigo Gonzalez

Eguzki izpiek keinurik egin gabe joan da asteburua. Eurria eta eguraldi goibela nagusi izan dira, baina horrek ez du Kutxa Kultur Festibala bertan behera geratzerik lortu. Antolakuntzak apustu handia egin du aurten: Igeldo utzi, eta hipodromora lekualdatu dira. Askoz ere erosoago ibili ziren bertan musikazaleak, eurria goian behean hasi arte. Hasiera batean belarra zena lokatz bihurtu zen. Dena dela, festa giroa ez zen itzali. Eguraldi txarrari, aurpegi ona: xirak jantzi, aterkiak zabaldu eta musikaz gozatu zuten jaialdiaren eremuan bildutakoek.

Havoc talde donostiarrak ireki zuen eszenatoki nagusiko (Keler gunea) kontzertu-sorta. Euren laugarren estudioko lana aurkeztu zuten: *Amado lider*. Euskal Herriko beste hainbat talde eta bakarlari ere aritu ziren ostiralean: Madeleine, Kokein, Sara Mansilla, Iñigo Serrulla eta Zea Mays, besteak beste. Bereziki indartsua izan zen Aiora Renteria eta enparauek

eskainitako emanaldia: iaz kaleratutako *Harro* laneko hainbat abesti jo zituzten, baina baita klasikoak ere: *Elektrizitatea*, *Negua joan da ta*, *Oihu*, *Bi bihotz*, *bi ero* eta beste hainbat.

## Lokatz artean dantzan

Arestian esan bezala, arratsaldean eta gauean botatako euriaren ondorioz, erabat lokatzu zen hipodromoko belardia. Eszenatoki nagusiaren inguruan nabaritu zen, batez ere. *Love of Lesbian* eta *The Jesus and Mary Chain* taldeek jendetza erakarri zuten emanaldietara, eta aipatu lokatz hori ez zen eragozpena izan abestiak entzun bitartean dena emateko. Goizeko bostak aldera bukatu zen festa hipodromoan.

## Larunbata ere, musikaz blai

Larunbat arratsaldean, jende ilara luzea ikus zitekeen Lasarte-Oriako tren geltokitik behera.

Vanessa Zamora izan zen eszenatoki nagusira (Keler agertokira) igo zen lehen musikaria, eta bere

ikusizunaren ostean izan ziren *The Divine Comedy*, *The Drums*, *The Hives*, eta *Hercules* eta *Love Affair*.

Gainerako agertokietan ere askotariko musika emanaldiak izan ziren, horien artean *Skakeitan*, *Lookers*, *Beñat Igerabide*, *Oso Fan*, *Erol Alkan* eta *Luma*, beste zenbaiten artean.

## Herrian ere musika giroa

Herriko kaleetan ere arnastu ahal izan zen Kutxa Kultur jaialdiaren giroa, larunbatean, pintxo eta edari artean.

Aterpea Merkatarien Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean antolatuta, musika-potea eta hainbat kontzertuz gozatu ahal izan zen. Horrela, 12:00etan hasi eta 15:00ak bitartean, *Roadhouse*, *Indian Feathers* eta *Psicoacoustic* musika taldeek kontzertuak eskaini zituzten herriko txoko ezberdinetan.

Herritar ugari animatu ziren kalera irten eta doinu zein pintxo desberdinak entzun eta dastatzera. Giro ederra sumatu zen egitasmoaren harira.



Musika emanaldiez gain, itxura aldatzeko postuak ere egon ziren jaialdian. TXINTXARRI



Zea Mays taldeko Aiora Renteria abeslaria, emanaldiko une batean. TXINTXARRI



Jatorri eta estilo askotariko musika talde ugari aritu ziren hipodromoko agertokietan. TXINTXARRI



Gogo handiz eskaini zituzten emanaldiak aurtengo talde parte hartzaileek. TXINTXARRI





Eguraldiak batere lagundu ez bazuen ere, jende ugari gerturatu zen hipodromora, bertako musika emanaldiez gozatzera. TXINTXARRI



François and The Atlas Mountain taldea, ostiralean eskaini zuen emanaldian. TXINTXARRI



Musika zale ugari bildu ziren Kutxa Kultur jaialdiaren eremuan. TXINTXARRI



Bi musikari gitarra jotzen, Lasarte-Oriako kontzertuen unean. TXINTXARRI



Roadhouse musika taldeak larunbatean eskaini zuen kontzertua, Aterpeak antolatutako pintxo musika egitasmoaren harira. TXINTXARRI



The Jesus and Mary Chain taldeak ikusle ugari erakarri zituen jaialdira. TXINTXARRI



# Urteko azken mendi erronka, elkarrekin

Hiru herritar lehiatu dira Nafarroa Xtrem mendi lasterketan: Javi Olazagoitia eta Xanti Trantxe luzean, 67 kilometrokoan, eta Joseba Iparragirre motzagoan, 32 kilometrokoan. Trantxek eta Olazagoitiak batera amaitu dute proba, 9:38 ordutan

## Adrian Garcia

Oraindik igandeko balentriatik errekueratzen ari dira hiru lasarteoriatarak. Mendiz mendi ibili ziren joan den asteburuan, Nafarroa Xtrem lasterketan, Pirinioen bueltan. Javi Olazagoitiak eta Xanti Trantxek 67 kilometro eta 4.000 metro desnibel positiboko lasterketa egin zuten, eta Joseba Iparragirrek, berriz, 32 kilometro eta 1.890 metro desnibel positiboko bertsio laburragoa.

Olazagoitiak eta Trantxek eskarmentua dute gisa honetako lasterketa luzeetan, asko baitituzte eginak. Iparragirrek bezala, urteko azken erronka gisa planteatua zuten Nafarroa Xtrem. Iraileko lasterketek, ordea, badituzte albo ondorio batzuk: "Udako garagardoak eta, gutxiago zaintzen zara, eta gehiago kostatzen da horrelako lasterketa baterako prestatzea. %100ean ez bazaude, lasterketak segituan jartzen zaitu zure lekuan", esan du Olazagoitiak.

Ibilbide luzeak bi lasterkariak 9:38 ordu behar izan zituzten 67 kilometrokoan eta sei mendateak igotzeko. "Eguraldi bikaina egin



Xanti Trantxe eta Javier Olazagoitia, lasterketako une batean. J. OLAZAGOITIA

zuen. Lokatza pixkat bazegoen, baina ez gehiegi", azaldu du Trantxek. Iaz baino gehiago gozatu du, euripean egin baitzuten orduan proba. "Ez nuen paisaiak gozatzeko aukerarik izan".

## Adiskidetasuna mendian

Baina denboraz eta markez harago, korrikalariak nabarmendu dute gisa honetako erronkek sortzen duten adiskidetasuna. Trantxek eta

Olazagoitiak elkarrekin egin dituzte hamaika lasterketa, baina orain arte ez dira sekula batera helmugaratu. "Hitz egin genuen, eta esan genuen: zer demontre, behingoagatik goazen elkarrekin bukatzera. Zer axola dio sailkapenak. Oso polita izan zen", esan du Olazagoitiak. "Asko laguntzen du konpainiak. Burua okupatuta edukitzen duzu horrela", azaldu du Trantxek.

Lasterketa gaztea da Nafarroa Xtrem; bigarren urtea besterik ez du. Aurten parte hartzea baxua izan arren, Lasarte-Oriako korrikalariak uste dute arrakastatsua izango dela proba. "Oso ona da antolakuntza, segurtasuna, anoa postuak eta markatzea primerakoak dira. Ibilbidea oso gogorra da, baina izugarri ederra. Korrika egiteko kilometro asko daude, baina aldapa izugarri gogorak dira", dio Olazagoitiak.

Mendi lasterketa luzeetako korrikalariarentzat Euskal Herrian Leitzako Mendi Erronka da erreferentzia. Olazagoitiak eta Trantxek egin dute. "Oso desberdinak dira. Gogorragoa da Nafarroa Xtrem. Gainera, Leitzakoa ezagutzen nuen, eta badakit noiz estutu, eta noiz lasai ibili. Nafarroan ez nekien zer nuen aurretik", esan du Olazagoitiak.

## Une txarrak

Ordu luzez aritu dira lehian bi herritarrek, eta izan dituzte une txarrak. "Pazientzia edukitzea" da, haien ustez, lasterketa ongi bukatu ahal izateko gakoa. "Zuri komeni zaizun erritmoan joan behar duzu, eta mentalki prestatuta egon behar zara. Ondo zaudenean, agian ez zaude hain ondo. Eta gaizki zaudenean, gorputzak badu ahalmena horri buelta emateko", adierazi du Trantxek.

Hain zuzen, berak arazoak izan zituen giharretan. "Abduktoretan karranpak izan nituen. Une batez gelditu geratu nintzen, luzaketak egin nituen, eta aurrera jarraitu ahal izan nuen". Olazagoitiari ere luzea

egin zitzaion proba, eta azken unean sufritu zuen. "Xantik itxaron egin behar izan ninduen bukaeran, giharrak oso kargatuta nituelako".

## Laburra, 32 kilometrokoa

Lasterketa laburrean ere izan zuen ordezkari Lasarte-Oriak. Iparragirrek 4:13 ordu behar izan zituen lasterketa osatzeko. "Espero baino hobeto egin nuen, tenperatura freskoak lagundu zuten". Lehenengo hogeiki kilometroak egin zitzaizkion zailak Iparragirreri. "Katarroa nuen, eta gorputzari buelta eman arte sufritu egin nuen". Bi

## TENPERATURA FRESKOAK ON EGIN DIE KORRIKALARIEI NAFARROAKO MENDATEETAN

mendate igo zituzten, Adi eta Zotalar, eta azken zazpi bat kilometrokoan maldan behera egin zituzten. "Harri kozkor tartean ibili ginen aldapa behera, eta gogor samarra egin zen".

Distancia horretan gustura ibiltzen da Iparragirre. "Mendi maratoni bat egin dut; hor dago nire muga, nahikoa dut horrekin". Iparragirrek ere amaitu du denboraldia.

Orain, merezitako atsedena hartuko dute hiru kirolariak, nahiz eta dagoeneko buruan badituzten 2018rako erronkak. Dena den, urte amaiera arte ez diote korri egiteari utziko: Lasarte-Oria Bai krosa dute begiz jota.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>ERREGIONALEN GORENGOEN MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Martutene KE</b> Larunbata. 17:15. Michelinen.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Zumaiako FT - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:30. Aita Marin, Zumaian.
<b>JUBENILEN LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ekintza KE 'B'-Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Berion, Donostian.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Antiguoko KE</b> Larunbata. 15:15. Michelinen.
<b>LEHENENGO MAILA</b>

<b>Reala- Bartzelona</b> Igandea. 16:00. Zubietan.
<b>BIGARREN MAILA</b>
<b>Añorga KE- Aurrera Vitoria</b> Igandea. 12:00. Añorgan.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>SENIORREN GIPUZKOAKO KOPA</b>
<b>Ventanas Isu leihoak - Lauburu</b>
<b>Aldaz Klinika</b> Ostirala. 19:30. Lasarte-Oriako kiroldegian.
<b>Cecilia Frutadenda - Ataun</b>
<b>Troskaeta</b> Larunbata. 18:00. Lasarte-Oriako kiroldegian.
<b>3. NAZIONAL MAILA</b>

<b>Soloarte FC - Carpinterias Antonio-Eguzki</b> Igandea. 10:15. Basaurin.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>ERRENDIMENDUKO JUNIORRAK</b>
<b>Zast Orio ZKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:00. Orion.
<b>ERRENDIMENDUKO KADETEAK</b>
<b>Ostadar SKT - Easo 02</b> Igandea. 11:00. Maialen Chourraut udal kiroldegian.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Babyauto Zarautz KE - Crat A</b> Coruña
<b>Igandea. 12:00. Asti zelaian, Zarautzen.</b>

<b>OHOREZKO MAILA</b>
<b>Hernani CRE - Valladolid RAC</b> Igandea. 12:00. Landare zelaian, Hernanin.
<b>HERRI LASTERKETAK</b>
<b>5 MILIA BURUKO OSASUNAGATIK</b>
<b>Guztira Lasarte-Oriako hamazazpi korrikalari lehiatuko dira AGIFES elkarteak (Buruko gaitzak dituzten pertsonen senideen elkarteak) antolatutako lasterketan. Zortzi kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.</b> Igandea. 10:00. Donostian.
<b>JOSETXO IMAZ MEMORIALA</b>

<b>Lasarte-Oriako bi korrikalari arituko dira hamar kilometroko herri lasterketan.</b> Igandea. 11:00. Altamirako pistetan, Ordizian
<b>PILOTA</b>
<b>ESKUZ BINAKAKOA LEHENENGO MAILA</b>
<b>Soraluze - Intza</b> Larunbata. 10:30. Soraluzeko udal pilotalekuan.
<b>ESKUZ BINAKAKOA HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Aloma Mendi - Intza</b> Larunbata. 11:30. Zubikoa pilotalekuan, Oñatin.



# Babyauto Zarautzek, lehen bost puntuak

Babyauto Zarautz taldeak lan ederra egin du Oviedoko El Naranco zelaian. Lehen zatian etxeko taldeak aurrea hartu du, baina bigarrenean partidari buelta eman diote gipuzkoarrek. Lasarte-Oriako jokalariek haien harritxo jarri dute garaipenean

## Txintxarri

Babyauto Zarautz errugbi taldeak Ohorezko B mailan hasi du 2017-2018 denboraldia, eta Oviedoko El Naranco zelaian jokatu zuten lehen jardunaldia zarautzarrek. Zelai zaila izan ohi da Asturiaskoa, eta igandekoa horren erakusle izan zen. Oviedoko taldea gogotsu aritu zen, eta partida zaila izan zuen Babyautok. Beltzak RT Lasarte-Oriako taldearekin elkarlanean aritzen da Zarautzeko taldea.

Etxekoek erritmo bizia ezarri zuten bere lerroan, eta lehenak izan ziren puntuak lortzen. 5. minutuan, azkar jokaturako zigor kolpe batekin, Zarautzeko defentsa lokartuta aurkitu eta talde asturiarrak entsegua eta bihurketa lortu zituen. 3 minutu geroago, beste zigor kolpe bat lortu zuen, eta, 18. minutuan, entsegu eta bihurketa berri batekin, markagailuan 17-0 aldentzea lortu zuen Oviedoko taldeak.

Nahiz eta Babyauto Zarautzek aurrera egiten saiatu, Oviedok eraso guztiak geratu zituen. Hala ere, metroak irabazten joan eta atsedenaldirako minutu baten faltan, Oviedoko jokalaria bat txartel horiaz 10 minuturako kanporatua izan zen. Ondorioz,



Babyauto Zarautzeko errugbilariak, defentsa lanetan Oviedoren aurka. BABYAUTO

gipuzkoarrek entsegua lortu zuten.

Horrek konfiantza eman zien gipuzkoarrei, eta bigarren zatian erasora atera zen taldea. Oviedoko hamabostekoak ez zuten emaitza defendatzen jakin, eta Zarautzeko aurrelariak ederki aprobetxatu zuten; hiru laurdenek jokoa bertikala egin eta jokoa ireki zuten.

Babyauto Zarautzek lau entsegu eta bi bihurketa egin, eta 17-36koa ezarri zuen markagailuan,

denboraldiko lehen bost puntuak eskuratuz.

Lasarteoriatarren artean, Rekondo anaien eta Xabi Prietoren lana aipagarria izan zen, baita David Vegak lerroan egin zuena ere. Deialdian beste lasarteoriatar bat ere izan zen, Adrian Apaolaza, baina ezin izan zuen Ohorezko B mailan debuta egin. Igandean, 12:00etan jokaturako A Coruña CRAT taldearen aurka, Asti Zarautzeko zelaian.

## Nesken taldea osatzea lortu du areto futboleko Eguzkik

Sei talde izango ditu: seniorreko hiru, jubenilak eta kadeteak. Asteburu honetan hasiko dute denboraldia

## Txintxarri

Lasarte-Orian izango da areto futboleko nesken taldea. Deialdia egina zuen Eguzki kirol elkarteak, eta, azkenean, hamar bat futbolari biltzea lortu dute. Entrenatzen hasi dira dagoeneko, eta urrian hasiko dira lehiatzen.

Aurrerapausoa eman dute aurten herriko areto futbol taldeek, eta proiektu bakar batean batzea lortu dute, Eguzki Kirol Elkartearen barruan. Horrela, guztira sei talde edukiko dituzte. Senior kategorian hiru, beste horrenbeste mailatan; jubeniletan; kadeteetan; eta, azkenik, emakumen talde berria.

Gorka Redondo elkarteko arduraduna pozik agertu da, "kate guztia" osatzea lortu dutelako. Hau da, kadeteetatik hasi eta Nazional Mailako hirugarren mailara arte, jarraipena eduki ahalko dute

futbolariak. Nesken taldea ateratzea areto futbola herrian sustatzeko garrantzizua dela deritzo.

## Sei talde

Nahiz eta talde guztiak Eguzki elkartearen barruan egon, babesleek hala erabakita, talde bakoitzak orain arteko izenari eutsiko dio. Horrela, Ventanas Isu-Eguzki probintziako lehenengo mailan lehiatuko da; Cecilia Frutadenda-Eguzki, Probintziako Bigarren Mailan; eta Carpinteria Antonio-Eguzki, estatu mailako Hirugarren Mailan.

Denboraldia hasiko dute hiru talde horiek asteburu honetan. Gipuzkoako Kopa jokaturako dute Ventanas Isuk eta Cecilia Frutadenak. Carpinteria Antoniok, berriz, liga hasiko du igandean.

## Amaitu dute denboraldia herriko txirindulariek

Atsedean pixkat hartzeko ordua iritsi zaie herriko txirindulariei, denboraldia amaituta. Fin ibili dira aurten, hainbat garaipen eta postu onak eskuratuta.

Lasarte-Orian harrobia badagoela erakutsi dute gazteenek. Asier Pozo kadeteak pistan zein errepedean ongi moldatzen dela erakutsi du: brontzea lortu du Espainiako,

Euskadiko eta Gipuzkoako pista txapelketetan, eta txapelkunorde izan da Gipuzkoako erlojupekoan.

Iñaki Errazkin infantila ere fin ibili da bi modalitateetan: brontzea eskuratu du Euskadiko pista eta errepedeko txapelketetan.

Buruntzazpi taldeko gazteek postu onak lortu dituzte denboraldian, baita Iñigo Altunak ere: brontzea Gipuzkoako erlojupeko txapelketan, eta mendiko saria Beasaingo Loinaz frogan.

## Trinko triatloi taldeko kideek ekin diote ikasturte berriari

Iñigo eta Enaitz Ibarburu anaiek 'Epic Landus Swimrun Race' proba jokaturako dute datorren astean, Zuatzan

## Txintxarri

"Ikasturte berria, helburu berriak". Gogotsu ekin diote Trinko Lasarte-Oriako triatloi taldeko kideek denboraldi berriari, Facebook sare sozialean aditzera eman dutenez. Pasa den

asteburuan, esate baterako, Usurbilgo Baxurde Krosean egin zuen lasterka Jon Presa gazteak. 37 minutu eta 56 segundotan osatu zuen hamar kilometroko ibilbidea, eta bederatzigarren postuan helmugaratu zen.

Datorren astean ere ikusi ahalko dira taldearen kolore berdebeltzak, Zuatza aldean hain justu. Iñigo eta Enaitz Ibarburu anaiek *Epic Landus Swimrun Race* proban ariko dira.

Irailean egurrean dabilta herriko triatletak, baina udaran ez dira geldirik egon. Beñat eta Iurgi Los Arcos anaiek Purito Rodriguez proba zikloturista jokatu zuten Andorran. Beste kide batzuk San Roken eta Zumaian ibili dira, besteak beste.



Beñat eta Iurgi Los Arcos anaiek Andorran ibili ziren abuztuan. LA PURITO ANDORRA





Jon Pello Artetxe Intzako aurrelaria, joan den jardunaldiko partidaren une batean. TXINTXARRI

## Lesio batek okertu du Intzaren estreinaldia

Intzako Lehenengo Mailako bikoteak 10-22 galdu du Ilunperen aurka, Elola atzelariak eskuan min hartuta. Sorluzen arituko da bikotea larunbatean, baina Elola azken unera arteko zalantza da. Hirugarren Mailan, Intzak aise irabazi du Zumaiaren aurka

### Txintxarri

Ez du denboraldia nahi bezala hasi Intza Kirol Elkarteko Lehenengo Mailako bikoteak. Ilunpe taldearen aurkako partida jokatu zuten joan den ostiralean Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola bikoteak, baina 10-22 galdu zuten azpeitiarren aurka, etxean. Hirugarren Mailako bikoteak eman zuten asteburuko albiste pozgarria, erraz irabazi baitzion Zumaiari: 22-08.

Lehenengo Mailako bikoteak, Artetxek eta Elolak, ongi hasi zuten partida, azkar batean jarri baitziren aurretik markagailuan. 5-0eko partziala eginda, norgehiagoka menderatuta zutela zirudien.

Orduan iritsi zen zorigaiztoko ezustea: Elola atzelariak min hartu zuen eskuineko eskuan. Ezkerrekoarekin jokatu beste erremediorik ez zuten izan Intzako pilotariak, minak ez baitzion utzi eskuinarekin jotzen. Ilunpeko

bikoteak ongi aprobetxatu zuen egoera, eta atzera bota zituzten pilotakadak. Hamar tantotan geratu ziren azkenean Artetxe eta Elola.

Denboraldia hasi berritan ezusteko deserosoa kudeatu behar du orain Lasarte-Oriako pilota elkarteak. Zalantza baita Elola atzelaria hurrengo partidarako; Sorluzen dira jokatzekoak larunbat goizean. Berez, partida gogorra aurreikusten zen, baina atzelari titularrarik gabe nekez emango du onena Intza Kirol Elkartek. Lehen jardunaldian galdu egin zuen Sorluzek, eta sailkapenean lehen puntuak eskuratzeko gogotsu egongo dira.

**ELOLA ATZELARIAK  
ESKUAN MIN HARTU  
AURRETIK 5-0  
IRABAZTEN ARI ZEN  
INTZAKO BIKOTEAK**

Bigarren taldetik atzelari bat hartzea ere ez da aukera erraza. Izan ere, hirugarren mailan izena emanda dagoen pilotari bat lehenengo mailara igotzen badute, aurrerantzean ezingo du ostera hirugarren mailan jokatu. Eta egutegiko partida bakarria jokatu, zalantzak are handiagoak dira.

### Hirugarren mailan

Hirugarren mailan lehiatzen duen bikotea fin aritu zen, eta, 22-08 irabazita, sailkapeneko lehen postuetan da. Saketik min asko egin zuen Haritz Urkia aurrelariak, eta piloteoan fin aritu zen Gaizka Iruetagoiena atzelaria.

Larunbat honetan Oñatin jokatu du hirugarren mailako bikoteak, Aloña Mendiren aurka. Beste bikote bat arituko da, ordea, Zubikoa frontoian: Julen Iribar eta Aritz Solano.

## Errendimenduko juniorrek galdu egin dute lehen partidan

Etxean galdu dute Atletico San Sebastianen aurka. Kadeteek eta infantilek ere galdu egin dute

### Txintxarri

Joan den larunbatean ligari ekin zioten Ostadar SKTko errendimenduko junior neskek, baina ez zuten aukerarik eduki Atletico San Sebastian talde indartsuaren aurka: 43-55 galdu zuten Maialen Chourraut kiroldegian.

Probintziako lehenengo mailako neskek ere ez zuten garaipenik eskuratu: 44-69 galdu zuten Mutil Basketen aurka. Arauzko 40 minutuak ez ziren jokatu, azken laurdena amaitzeko minutu baten faltan Mutil Basketeko jokalaririk bat erori eta kolpe gogorra jaso zuelako. Azkenean, partida bertan behera uztea erabaki zuten.

Beste hainbat emaitza ere utzi zituen saskibaloiak. Partizipazio kadete neskek jipoa jaso zuten Mutil Basketen partetik: 14-99.



Iazko partida bat. TXINTXARRI

Infantil Handi neskek ere ez zuten partida fina jokatu: 4-76 galdu zuten.

Dena den, talde asko oraindik aurrendenboraldian daude, eta urrira arte ez dira liga jokutzen hasiko.

## Garaipenak, kadeteek

Kadete, jubenil eta erregional mailako taldeek ekin diote 17-18 denboraldiari. Gazteenek soilik irabazi dituzte euren partiduak.

Emaitzak: Sanpedrotarra 2-1 Ostadar SKT (Erregional Preferentea); Ostadar 0-1 Aloña Mendi (Ohorezko Jubenila); Ostadar SKT 3-3 Axular (1go jubenila); Hernani 3-5 Ostadar SKT (Ohorezko Kadetea); eta Ostadar SKT 3-0 Danena (1go kadetea).



TXINTXARRI

## Master atalean izena emateko epea zabaldu du Buruntzaldea IKTK

Igeriketarekin zerikusia duen edozein kirol egin eta 20 urte baino gehiago edukiz gero, Buruntzaldea IKTK aukera ematen du Master atalean izena eman eta taldean entrenatuz hobetzeko. Urriaren 2an hasiko dira entrenatzen; interesa duen oro apunta daiteke honezkero. Astelehen, asteazken eta ostiraletan entrenatu ahalko

dute, 07:10etik 08:10era, edo, bestela, 15:45etik 16:45era. Igerilari bakoitzak ongien datorkion ordutegia aukera dezake astean zehar. Astean hirutan entrenatu ahalko du, gehienez.

Buruntzaldea IKTKren web orrialdean eman behar dute izena herritarrek. Informazio gehiago nahi duenak hainbat bide ditu eskuratzeko: deitu dezake 696 506 632 telefonora, edo, bestela, [buruntzaldeaikt@gmail.com](mailto:buruntzaldeaikt@gmail.com)-era idatzi.



## ZORION AGURRAK



## Pili eta Iñaki

Zorionak guapisimos!!! Ondo pasako zenutela espero dugu. Muxu handi bat, Ttakuneko lankideen partetik

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zorientzeko:

## Internet

Txintxarri.eus-en  
txintxarri.eus/zorionagurrak eta  
Bidali zure zorion agurra  
formularioa bete.  
Urtebetetze egunean bertan

argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali  
txintxarri@txintxarri.eus  
helbidera, eta idatzi:  
izen-abizenak, urtebetetze-  
eguna eta nahi duzun testua.  
Ez ahaztu irudia abikitzeaz.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

## LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## GUTUNAK

## Lasarte-Orian zoorik ez

## EGUZKI

Donejakue Bideko II. Azoka dela eta, hegazti harraparien erakusketa bat izan da asteburuan Lasarte-Oriako Kale Nagusian. Erakusketa hori aurtengo programaren berrikuntza nagusi bezala aurkeztu zen, baina, praktikan, dozena bat hegaztiz osatutako zoo txiki batekin egin dugu topo. Txanpon batzuen truke, hurrek hontz handi bati edo mozolo bati "maite-maite" egin ahal izan diete, gurasoek argazkiak ateratzen zituzten bitartean.

Animaliak Babesteko eta Edukitzeko Udal Araudiak honako hau dio:

13 artikulua.- Debekuak  
1.- Erabat debekatuta dago:

a) Animaliei tratu txarra ematea, edo arrazoirik gabe

sufrimendua, mina edo larritasuna eragin liezaieketen edozein jarduerapean jartzea.

Eguzkikoon iritiz, garbi dago asteburuan bisitan etorri zaigun zooak araudia nabarmen urratu duela. Izan ere, hegazti hauek (baita gautarrak direnak ere) egun santu guztian jendearen aurrean izatea, hanka burdinazko eraztun bati lotuta, tratu txarra da, eta ez du zuzitako beste kalifikaziorik merezi. Larunbatean, adibidez, hegaztiok 11:00etan ikusgai zeuden, eta 21:30ean hortxe jarraitzen zuten. Bestalde, ez dakigu zehatz-mehatz nola eta non lo egin duten, baina igandean, 10:30ean, bidaia-kaiola txiki batzuetatik ateratzen ari ziren, berriro ere ikusgai jartzeko.

Dena dela, arauditik harago, seguru gaude udalak garbi duela horrelako zooak ez direla

inola ere bultzatu behar. Are gehiago, apustu egingo genuke udalak hegaztien hegaldi librean oinarritutako ikuskizun bat kontratatu zuenean, besterik zuela buruan, ez Kale Nagusian ikusi ahal izan dugun zooa.

"Baina oso harrera ona izan du...". Nola ez du, ba, izango! Hegazti harrapariak dira! Animalia harrigarriak! Guraso batek nola egingo dio uko semea edo alaba horrelako batekin erretiratatzeko aukerari? Hori bai, ahapeka, guraso guztiak, edo gehienak, behintzat, "a ze pena!" esaten ari ziren, ulertzen zutelako hura ez zela animalia hauentzako lekua, animalia hauek ez direla ferriako jostailu.

Orain ez gara espantuka hasiko. Gertatu da, eta kito. Baina, gutun honen bidez, udalari eskatu nahi diogu hemendik aurrera Lasarte-Orian horrelako zoorik ez onartzeko.

## SUDOKUA

		8	4		5			2
		7	9			5		
4		5	6			1		9
5			2	8				3
8				5		9	2	
	4	2		6	9	8	5	
	8			4	6	2	1	
1		6		2				5
2	5			9		3	6	

## OHARRAK

## Euskal jaietako pintxo-potea

Euskal Jaietako lan taldearen izenean, taberna guztiei gonbita luzatzen diegu, Euskal Jaietan arratsalde-gau partean tabernak giroteaz gain, pintxo-potea ere eskaintzeko. Hala nahi izanez gero, gurekin jarri harremanetan 695 785 389 telefonoan.

## Euskotren neguko ordutegia

Astelehenean Euskotreneko zerbitzuen neguko ordutegia jarri zen indarrean. Honekin batera, lanegunetako zerbitzuak berreskuratuko dira. Euskotreneko geltokian, app-an edo web orrialdean ordutegiak eskuragarri daude.

## Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da, eta odol falta dago!

## Biyak Bat elkarteko bidaietan lekua

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak jakinarazi du urrian eta 2018ko maiatzean egingo dituen bidaietan izena emateko aukera dagoela.

Urriaren 16tik 25era Badajoz eta Jaenera joango dira elkarteko kideak;

2018ko maiatzaren 7tik 14ra, Mediterraneoan zeharreko bidaia egingo dute.

Informazio gehiago elkartearen egoitzan eskura daiteke.

## Eusko Ikaskuntzako beka

Eusko Ikaskuntzak 2017-2018 ikasturterako bi beka aurreikusi ditu, Master Amaierako proiektuentzat. Gaiak: Gazteen harreman sareak euskararen sozializazioan eta euskararen erabileraren aldeko motibazioak gazteengan. Informazio gehiago Eusko Ikaskuntzaren web orrian.



## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

**SALDU**  
Etxebizitza salgai. Usurbil. Duplexa Kalezarren salgai. Aizparrenea etxea, 176 metro karratu (120 eta 56). Garajea 50 metro karratu eta terraza 9m. Igogailua eta fatxada berriak. Oso argitsua eta bista onak. 359.000 euro. Telefonoa: 679 002 101

### ALOKAIRUA

Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. Bi logela

ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766

### LANA

#### ESKAINTZA

Esperientzia duen zerbitzaria behar da taberna batean goizez lan egiteko. Telefonoa: 631 062 689

### ESKAERA

Interna bezala eskaintzen dut neure burua. Orduka lan egiteko prest nago. Adineko pertsonak zaintzeko edo

garbiketarak egiteko. Telefonoa: 671 763 558

Ostalaritza lanak, haur edo pertsona adinduen zaintza lanak edo etxeko lanak egingo nituzke. Telefonoa: 631 166 377

Zaintza lanak (haur edo pertsona adinduak) eta etxeko lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Ostalaritzan ere lan egingo nuke. Telefonoa: 619 355 819

Adineko pertsonak edo haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo ostalaritzan

lan egiteko prest. Telefonoa: 676 188 411

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606 661 048 / 943 404 015

### SALEROSKETAK

#### SALDU

Gurpil-aulki elektriko bat saltzen dut, Quickie

Tango markakoa. Telefonoa: 629 443 731.

he artikulatua, sofa ortopedikoa eta ultiarak ekiditeko koltxoia saltzen ditut. 670350378

### BESTELAKOAK

#### ALOKAIRUA

Garaje marra alokatzen da Zubieta plazan. 943 372 066.

## JAIOTAKOAK

**Lucas Miguel Castrillejo.** Irailaren 19an.

## HILDAKOAK

**Francisco Gonzalez Bermudez.** Irailaren 15ean.

## ESKELAK

**ESKELAK JARTZEKO:**  
Txintxarri erredakzioan  
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

**Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan**

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 22 LASA  
Larunbata, 23 GIL  
Igandea, 24 GIL  
Astelehena, 25 ORUE  
Asteartea, 26 ACHA-ORBEA  
Asteazkena, 27 URBISTONDO  
Osteguna, 28 GANDARIAS-URIBE


**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SALA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 22

### LASARTE-ORIA Stock Azoka

Lasarte-Oriako Merkatarien elkarte Aterpeak Stock Azoka antolatuta du. Hamabost negoziok denboralditik kanpo geratu zaizkien salgaiak jarriko dituzte eskaintza berezietan. *Lasarte-Oria, goiz eta arratsaldez.*

### LASARTE-ORIA Gautxori

'Gautxori' egingo dute gaur, ostiralez, Manuel Lekuona kultur etxean. Antzerkiaz, musikaz eta dantzaldiaz gozatu ahaliko dute gauean herritarrek, 02:30ak arte. Manuel Lekuonako taberna irekita egongo da, eta giro lasaian musikaz gozatu ahal izango dute lasarteoriatarrek.

**20:30etik 02:30era:** Kultur etxeke kafetegia irekita egongo da, Pub Patricioren eskutik. Pintxoak eta urdaiazpiko ebakitzailea izango dira. **21:00etan:** Amaia Gonzalez y CIA-ren emanaldia, auditoriumean. **22:00etan:** Kafe kontzertua kafetegian. *Old Charm Blues* taldeak joko du: pianoa eta abeslaria zuzenean. **23:00etan:** Antzerkia helduentzat, auditoriumean: *Ovarios verdes fritos*. **00:15etatik 02:30era:** Dantzaldia kafetegian Amaia Gonzalez y CIA-rekin, eta DJ Duke-rekin. *Kultur etxean, 20:30etik 02:30era.*

### LASARTE-ORIA Auto gabeko eguna

Mugikortasun astea ospatzeko, gaur, autorik gabeko egunean adin ezberdinetako herritarrei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dira. **Egun osoan zehar:** Manttangorri autobus zerbitzua doan, eta argazki erakusketa udaltxeko arkupean. **11:00etan:** *Ttipi Ttapa*. *Ondo ibili* irteera, Okendo plazan. Ordu t'erdiko iraupena duen ibilialdia adineko pertsoneri zuzendua dago. **16:30etik 19:30era:** Haurrei zuzendutako jolasak, Kale Nagusian eta Okendo plazan: segway, asisialdiko jolasak, herri kirolak, futbitoa... **16:30etik 19:30era:** Ostadar SKTko ipar marxa taldea, Okendo plazan. **16:30etik 19:30era:** Bigarren eskuko bizikleta azoka, Okendo plazan. Saldu nahi diren objektuak 15:00etatik 16:30era utzi behar dira.



**LASARTE-ORIA Stock azoka** Aterpea Merkatarien elkarteak, udalarekin elkarlanean antolatuta, Stock Azoka bultzatu dute, gaur eta bihar. Horrela, udazken eta negu denboraldiko produktuei leku egiteko, aurreko denboraldietako produktuak jarriko dituzte salgai herriko zenbait komertzio, prezio berezietan. *Gaur egun osoz, eta bihar goizez, Lasarte-Orian.*

**16:30ean:** 6 eta 11 urte bitartekoen bizikleta marxa, Okendo plazan. Ibilbidea erdialdeko bideetatik egingo da. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eramatea beharrezkoa da. **17:00etan:** 12 urtetik gorako bizikleta marxa, Okendo plazan. Donostirako bidegorritik eta Plazaola bidetik barreneko ibilbidea. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eramatea beharrezkoa da. *Lasarte-Orian, 11:00etatik 17:00etara.*

## LARUNBATA 23

### LASARTE-ORIA Stock Azoka

Lasarte-Oriako Merkatarien elkarte Aterpeak Stock Azoka antolatuta du. Hamabost negoziok denboralditik kanpo geratu zaizkien salgaiak jarriko dituzte eskaintza berezietan. *Lasarte-Orian, goizez.*

### ASTIGARRAGA XVII. Sagar uzta jaia

Sagar Uzta sagarraren jaia da, eta dolaretako lanen hasiera ospatzen da sagarra eta sagardoaren inguruko jarduerak ugarirekin. **09:30ean:** 'Sagar motak ezagutz', Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendi-buelta familian. Izena ematea beharrezkoa da. **10:00etan:** IV. Sagardobide erronka. Santiagomendin zeharko errelebo proba. **11:00etan:** Familientzako apainketa

tailerra sagarrarekin. Izena ematea beharrezkoa da. **16:00etatik 19:00etara:** Garbiba Zafari merienda. Izena eman behar da. *Astigarragan, 09:30etatik 19:00etara.*

## IGANDEA 24

### ASTIGARRAGA XVII. Sagar uzta jaia

Sagar Uzta sagarraren jaia da, eta dolaretako lanen hasiera ospatzen da sagarra eta sagardoaren inguruko jarduerak ugarirekin. **09:30ean:** Musika Eskolako txistu ikasleen eta Txirriskla Txistulari Taldeak dianarekin esnatuko diatu herritarrek. **10:30etik 12:00etara:** Sagar postre lehiaketa. Postreak frontoian entregatu behar dira. **10:30etik 12:00etara:** X. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala. Izena ematea beharrezkoa da. **11:00etatik 14:00etara:** Sagarraren azoka. **11:00etan:** Muztioa egingo da; sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea bertaratutako familien laguntzarekin. Izena ematea beharrezkoa da. **12:30ean:** Sagar dantza eta kirrikoketa. **13:00etan:** Txalaparta eta 2017 uztako lehen muztioaren topa herrikoia. *Astigarragan, 09:30etik 13:00etara.*

## ZINEMA

### USURBIL

Igandea: 15:45, 16:50, 17:55, 19:00, 20:30.

### URBIL

### Kingsman: El círculo de oro

Ostirala: 16:20, 18:20, 19:10, 20:00, 22:00, 00:40. Larunbata: 16:20, 18:20, 19:10, 20:00, 22:00, 00:40. Igandea: 16:20, 18:20, 19:10, 20:00, 22:00.

### La LEGO Ninjago película

Ostirala: 15:45, 17:55, 19:00, 20:30. Larunbata: 15:45, 16:50, 17:55, 19:00, 20:30.

### La reina Victoria y Abdul

Ostirala: 17:00, 19:30, 21:50, 00:10. Larunbata: 17:00, 19:30, 21:50, 00:10. Igandea: 17:00, 19:30, 21:50.

### Detroit

Ostirala: 16:10, 21:50. Larunbata: 21:50. Igandea: 21:50.

### Barry Seal: El Trafficante

Ostirala: 15:45, 21:10, 23:35. Larunbata: 21:10, 23:35.

### Igandea: 21:10.

### It

Ostirala: 16:00, 18:45, 20:05, 22:00, 00:45. Larunbata: 16:00, 18:45, 20:05, 22:00, 00:45. Igandea: 16:00, 18:45, 20:05, 22:00.

### El Otro Guardaespaldas

Ostirala: 22:35, 00:55. Larunbata: 22:35, 00:55. Igandea: 22:35.

### Emoji: La película

Larunbata: 16:20. Igandea: 16:20.

### La niebla y la doncella

Ostirala: 22:50, 00:50. Larunbata: 22:50, 00:50. Igandea: 22:50.

### Tadeo Jones 2: El secreto del Rey

Ostirala: 16:00, 18:00, 18:10. Larunbata: 16:00, 18:00, 18:10. Igandea: 16:00, 18:00, 18:10.

### Verónica

Ostirala: 22:50, 00:55. Larunbata: 22:50, 00:55. Igandea: 22:50.



## LABURPENA

### La reina Victoria y Abdul

**Zuz.:** Stephen Frears. **Herr.:** Erresuma Batua-Estatu Batuak (2017). **Gidoilariak:** Lee Hall. **Aktoreak:** Judi Dench, Ali Fazal, Eddie Izzard, Tim Pigott-Smith, Ali Fazal, Robin Soans, Jonathan Harden, Sukh Ojla. **Iraupena:** 101 minutu

## Adiskidetasuna, mailez haraindi

Victoria erreginaren 50. urteurrena dela eta, Abdul Karim gazteak Indiati britainiar gortera bidaiatzen du. Abdul *El Munshi* ezizenez ezaguna da, eta interesa sortzen du erreginaren.

Bien artean harreman estua sortzen doa, eta Victoria erreginaren bizitzan eragin handikoa bihurtzen da; esate baterako, erregina bizi izan zen azken hamabost urteetan Indiako idazkari izan zen Abdul. Adiskidetasun horrek erreginaren pentsaera aldatzen du. Bere karguak dituen murrizketak zalantzan jartzen

ditu Victoriak, eta mundua beste begi batzuekin ikusten hasten da, bihozberatasuna berreskuratuz.

Gorteko kideek ez dute adiskidetasuna gogoko, ezta erreginaren pentsaera aldaketa ere. Harremana nola edo hala zapuzten saiatuko dira.

Stephen Frears zuzendariak Shrabani Basuk idatzitako *Victoria & Abdul. The True Story of the Queen's Closest Confidant* eleberria zinera eraman du. Liburua 1887. urtetik Victoria erregina hil arte jazotako gertakari historikoetan dago oinarritua.



## KOMIKIA



## BITXIKERIAK



Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik etortzen ziren zaldi lasterketak ikustera. KUTXATEKA

# 1917ko Errege Kopan, hipodromoa jendez lepo

Errege Kopa, Donostia Sari Nagusia, Urrezko Kopa... milaka sari banatu dira hipodromoan 101 urte hauetan. Sarien izenen bilakaera eta 1917ko irailean Errege Kopako kronika txikia eskaintzen dugu oraingoan.

## Nerea Eizagirre

Zaldi lasterketen denboraldia amaitu da. Irailaren 16an, hainbat lasterketa bertan behera geratu behar izan ziren eguraldi txarragatik. Duela mende bat, ordea, denboraldia hasi berria zen, eta jendez gainezka zegoen, *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak 1917ko irailaren 17an argitaraturako kronikaren arabera.

Kontakizunak dionez, egun horretan bi lasterketa garrantzitsu izan ziren; batetik, hamar mila frankoetako lasterketa, eta, bestetik, Erregearen Kopa. Alfonso XIII. erregea, Maria Cristina erregina eta haien lagun-taldea bertan izan ziren.

Jende ugari bildu zen bertan, politikoak, "emakume lirainak",

Donostiara zetozen Espainiako udatiarrak... Belardian, egun horretan sarrera ordaindu behar izan zen, "erdi mailako herritarrek" zeuden bertan. Herritar xumeek, aldiz, mendian doan ikusten zituzten lasterketak. Eguzkia zen nagusi eta giro ederra nabari zen.

Lasarte herrira trenea jartzea ideia ona zela aipatzen du

egunkariak. Izan zere, egun horretan hipodromoa lepo baitzegoen. Urte bete lehenago, hipodromoko irekiera egunean, eez omen zen hain betea egon.

## Errege Kopa

Erregearen Kopa sarian, gaur egun Urrezko Kopa saria izango zenean, hamar mila duro zeuden jokoa.

11 zaldi lehiatu zuten. Irteera eman eta ateratzea kosta zitzaien arren, behin lasterka hasita, ikusmina handia izan zen. Villamejor zalditegiak eraman zuen saria, eta Villamejorko markesak jaso zuen garaikurra erregearen eskutik.

Lasarterketa hau baino lehen, hamar mila frankoetako lasterketa izan zen. Sternek gidatutako zaldiak, nahiz eta faboritoen artean ez izan, irabazi zuen. Ondorioz, haren alde apostu egin zutenek dirutza eraman zuten etxera, 41 duro duro bakoitzeko.

Hauetaz gain, 2.000, 3.000 eta 5.000 frankoetako saria zuten lasterketak ere ikusi ahal izan zituzten.

## Sari Nagusiak

Hipodromoak dituen 101 urtetan, milaka garaikur eta sari banatu dira.

Lehen urteetan, Errege kopa eta Donostia Saria izan ziren entzutetsuenak.

1922etik aurrera, Milioi Erdiaren Saria izan zen. Mundu Gerra amaitu eta Europara bueltatu ziren zalditegiak. Hauek berriro erakarri nahian, "inoiz eskaini zen saririk handiena zuten lehiak".

Gerra Zibilean ez zen lasterketarik izan hipodromoan.

Baina 1940an, Espainiako lehena izan zen bere atek irekitzen eta Donostiako Sari Nagusia berrezarri zen.

1966an, hipodromoaren 50. urteurrenean, nazioarteko lasterketari Urrezko Kopa saria izena ematea erabaki zen. 1967 eta 1968an ez zen probarik izan, baina 1969 urtetik gaur egunera arte iraun du. 2006 urtetik, Le Defi du Galop proba da. Egungo proba nagusia da, eta abuztuaren 15ean jokutzen da.

Bestalde, abiadurako probak sustatzeko, 1975an Maria Cristina Saria sortu zen, egun Eusko Jaurilaritza saria dena.

Bi urte beranduago, behor onenari saria ezarri zen, Felipe Ugarte saria. Gerora Gran Casino Kursaal eta Kutxa Saria izenak izan ditu sariak.

## Mendeurrena

Aipatu legez, hipodromoak 101 urte ditu; iaz, uztailaren 2an hipodromoaren mendeurrena ospatu zen.

Alfonso XIII.ak inauguratu zuen hipodromoa 1916an. I. Mundu Gerra zela eta, Belgikan, Frantzia eta beste hainbat herrialdeetan ez zen zaldi lasterketarik lehiatzen. Espainiak gerran parte hartu ez zuenez, erregeak eta George Marquetek, Donostiako Casinoaren jabeak, sustatuta Donostian hipodromoa egin zen.

Sei hilabete iraun zituzten lanek, eta inaugurazio handia izan zen.

Europako zalditegi onenak etorri ziren eta Donostiako Sari Nagusia lehiatu zen.

26 lehiakide izan ziren eta Teddyk hiru zaldiko aldea atera zien beste guztiei.